

## Gizarte eta osasun zerbitzuak: Muskizko adinekoen udal jantoki soziala



Gizarte eta osasun  
zerbitzuak



Aire zabaleko eremuak  
eta eraikinak

### Gizarte eta osasun zerbitzuak: Muskizko adinekoen udal jantoki soziala

---

Helburua da erabiltzaileen beharrak asetzea eta eskubideak babestea, baita haien bizi kalitatea sustatzea eta hobetzea ere.

Menu edo dieta orekatu bat ahalbidetzen du, arrazoizko prezioan, adineko pertsonak beren ingurunean jarrai dezaten eta bizi kalitate ona izan dezaten sustatzeko.

Denbora libre gehiago izateko aukera ematen du, bertaratzen diren pertsonak ez baitute janariaz kezkatu behar, eta beste pertsona batzuekin harremanak izateko aukera ematen die. Horrela, gizarte harremanak zabaldu egiten dira. Guztira, 30 lagunentzako lekua du.

Pertsonen arretarako planaren barruan dagoen zerbitzua da. Beste zerbitzu batzuekin koordinatzen dira, hala nola etxez etxeko laguntzarekin eta autonomia sustatzearekin, eta etxetik zentrorra joateko garraio zerbitzua du aukeran.

#### 1. Erakunde sustatzaileak

Muskizko Udala (Bizkaia)

#### 2. Erakunde mota

Publikoa

#### 3. Xede taldea

Muskizko 60 urtetik gorako erretiratuak.

Muskizko biztanleak, gizarte zerbitzuek premia aitortu dietenak.

Desgaitasun fisikoa eta psikikoa duten pertsonak, betiere profesionalen irizpidearen arabera.

## 4. Lurralde eremua

Muskiz (Bizkaia)

## 5. Egoera

Abian jarrita

## 6. Etiketak

Autonomia, arreta eta zaintza, Jantokia, Bizkaia

## 7. Helburuak

- Adinekoen bizi kalitatea hobetzea.
- Etxeko antolaketa hobetzea.
- Beste udal zerbitzu batzuk osatzea.

## 8. Metodologia

Adinekoen zentroko erizainak eta oinarritzko gizarte langileak etxez etxe egiten dituzten bisitetan ikusten denez, adineko pertsona asko bakarrik edo bikotearekin bizi dira, eta elikadura ez da egokia izaten, edo, prestatzeko modua dela eta, ez dute dieta orekatua egiten. Ikusitakoaren arabera, denbora asko ematen dute etxean bakarrik, egun askoz irten gabe eta harremanik izan gabe.

Eguneko zentro bat eta adinekoen etxe bat daudenez, jantoki zerbitzu bat jartzen da martxan, bertara joateko garraio zerbitzua izateko aukerarekin eta gizatalde horren beharretara egokituta.

Hauxe da sartzeko prozesua:

Sartzeko baldintzak betetzen dituzten adineko guztiei eskaintzen zaie. Eskaera oinarritzko gizarte zerbitzuan egiten da. Ondoren, adinekoen zentrorako bideratzen dute eta bertan egiten da sartzeko elkarrizketa, eskatzen da dokumentazioa, zerbitzuaren berri ematen da eta eskabidea onartzen da.

Sarrera data jartzen da eta egokitzapenaren jarraipena egiten da; zerbitzuaren kostuaren berri ematen da, familia unitatearen per capita pentsioa eta diru sarrerak bermatzeko errentaren mugak kontuan hartuta.

2019an, hileko 80 €-ko gehieneko ekarpena ezarri zen.

Janaria prestatzea

Bi menuren artean aukeratzen da, eta kontuan hartzen dira dietak (irabiatua, basala, diabetikoa, besteak beste), baita alergiak eta elikagaiekiko intolerantziak ere. Janariak bertan prestatzen dira, ahal dela tokiko elikagaiekin.

Jantoki zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren NIREA akordioari atxikita dago; horren bitartez, tokiko produktua ziurtatzen da, ekosistema zaintzearen alde egiten da eta landa eta itsas ingurunearen garapen jasangarria sustatzen da, hark garapen ekonomiko eta sozial orekatuari egiten dion ekarpena aitortuta.

#### Langileak

1. Sukaldaria – sukaldeko laguntzailea. Pertsoneri astean zer menu aukeratu nahi duten galdetzeko arduraduna.
2. Gidaria. Zerbitzu horren barruan, etxetik jantokira eta alderantziz joateko garraio zerbitzua izateko aukera eskaintzen da. Zerbitzu ibilbideak ezartzen dira, pertsona kopuruaren arabera.
3. Zerbitzuen koordinatzailea. Jarraipena eta egokitzapena egiten duen gizarte langilea.

#### Ordutegia

13:30etik 15:30era bitartean. Denbora tarte horretan egiten dira garraio eta bazkari zerbitzua.

#### Mahaien banaketa

Eguneko zentroko gizarte langileak zerbitzuaren hasieran eguneko elkarrizketaren bidez, balorazio bat egiten da eta sukaldeko langileekin koordinatzen da harrera onena egin ahal izateko.

Aintzat hartu behar dira erabiltzaileen gustuak, lehentasunak, zaletasunak eta lagunak, baita jantoki sozialera joateko arrazoi nagusia zein den ere. Hori guztia kontuan hartzen da bazkaria baino zerbitzu gehiago partekatuko duten mahaia antolatzerakoan.

Zentroko zuzendaritzak zein gizarte langileak jarraipen bat egiten dute zerbitzua erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen den aztertzeko.

Gainera, jantoki sozialeko zerbitzu horren bidez detektatzen diren beste behar batzuk ere sortzen dira maiz.

#### Aparteko otorduak

Batzuetan, adinekoen eguneko zentroak antolatzen dituen jaiak aprobetxatuta, menuak egoera horren arabera izaten dira. Bazkari bereziak San Juan egunean (herriko jai) eta Gabonetako jaietan.

## 9. Alderdi berritzaileak

Beste batzuekin koordinatutako zerbitzua da, hala nola etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin eta Autonomia sustatzearekin.

Adinekoen zentro batean integratuta dago.

Muskizko adinekoen elkartearen babesa du.

Jantokiko pertsonentzat bakarrik den garraio sistema pertsonalizatua du.  
Zentroan beste jarduera batzuk egiteko aukera ematen du.

Jantokiko metodologiak pertsonen arteko harremanak errazten ditu.

Zerbitzua udalerriko ekintza komunitarioen barruan txertatuta dago.

Taberna zerbitzua du, jantoki zerbitzuaren ordutegiaren barruan kafetegi zerbitzua emateko.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

### PARTE HARTZEKO BIDEAK

Gogobetetze inkesten bidez, parte hartzeko eta zerbitzuari buruzko iritzia emateko aukera eskaintzen zaie.

Horretaz gain, astelehenetik ostiralera zentroko edo gizarte zerbitzuetako koordinatzailearekin hitz egin dezakete.

Urtean bi balorazio egiten dira: bata zerbitzuaren enpresa esleipendunak berak egiten du eta bestea udaleko gizarte zerbitzuetako langileek.

Inkestan honako hauek jasotzen dira: elikagaiaren kalitatea (tenperatura, kantitatea, gozagarriak eta abar); erabilitako materialak (zentroaren eta sukaldeko tresnen garbitasuna); langileengandik jasotako arreta, eta proposamenak eta oharrak.

### Ohiko komunikazioak

Zentroko zuzendaritzak komunikazioetarako sistema bat du ezarrita, jantoki sozialaren funtzionamendu orokorrari buruzko edozein egoera kontsultatzeko. Erabiltzaileak edozein kontsulta egitera joan daitezke, aldez aurretik hitzordua eskatuta.

Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak jasotzeko sistema

Zentroko zuzendaritza arduratuko da iradokizunak eta kexak jaso eta izapidetzeaz.

Iradokizuntzat jotzen da zerbitzu bateko horniduraren, prozeduren, antolamenduaren, funtzionamenduaren edo praktika profesionalen alderdiren bat aldatzeko proposamen oro, helburu duena zerbitzuaren kalitatea hobetzea.

Kexatzat jotzen da zerbitzu baten horniduraren, prozeduren, antolamenduaren, funtzionamenduaren edo praktika profesionalen alderdiren bat aldatzeko eskaera oro, ulertzen baita zuzenean edo zeharka aldatu nahi den alderdiak kalte egiten diola erabiltzaileen eskubideei.